



## FASHION VICTIM-AK ZER OTE?

Asko dira modaren esanetara jantzita joatea gustatzen zaienak. Beste batzuek, ordea, moda multinazionalen asmatutako eta dirua xurgatzenko trikimailua besterik ez dela diote eta ez daudela beren hatzparretan erortzeko prest.

Baina, denok gutxi asko, modazko jantziren bat dugu gure armaruan. Nork ez du *Nike* elastiko bat? edo *Levi's* bakeroak? Eta ez al zara inoiz modan dagoen diskotekara joan?

Egia da, ordea, askok eta askok muturreko jarrera hartzen dutela eta moda bera beren bizi-estilotzat hartzen dutela, bizitza *Coca-Cola*-ko iragarki bat bailitzan. Horiek lirateke fashion victim-ak, janzkeraren morrontzan bizi direnak, alegia.